

Goizuetako Udalbatza, Herriko Etxeko Bilkura Aretoan, **bi mila eta hemezortziko irailaren 25ean** arratsaldeko zazpiak direlarik **ohiko bilkuran** biltzen da ondoren aipatzen diren partaide hauekin:

MARIA PILAR APECECHEA ELIZALDE  
DANIEL OYARZABAL LARRABURU  
ITSASO LUJAMBIO APEZETXEA  
JOSU GARMENDIA RECALDE

Eta Udaletxe honetako alkatea, UNAI LOIARTE ANSA

Idazkari lanetan, Miriam Arozena San Miguel, Goizuetako ordezkari idazkaria.

Alkateak eguneko aztergai zerrendako lehenengo puntuarekin hasteko agindua eman du

## **1.-AURREKO AKTEN ONARPENA**

Alkateak, eguneko aztergai zerrendarekin banatutako, 2018ko abuztuaren 27ko ohiko batzarreko aktan eta irailaren 13ko urgentziazko eta aparteko aktak, ia norbaitek aldaketaren bat proposatu nahi ote duen galdetzen die Udalbatzako kideei.

Horrelakorik gertatzen ez denez, Udalbatzak aho batez aktak onartzea erabaki du.

## **2.-GASTUAK ETA DIRUSARRERAK**

### **3.-INFORMAZIOA**

#### **3.1.-CATSA-Colectivos Arquitectos Tasadores S.A.**

Goizukoop Kooperatiba Elkarteak Goizuetako Udalari 72.000€tako mailegua eskatu dio Goizuetako Udalari. Goizuetako Udalak berme hipotekario bat egon dadin, dagokion balorazio txostena eskatu dio Catsa enpresari, eta balorazioaren aurrekontua igorri du. Tasazio hau egitea 1058,75€ kostatzen da, eta aurrekontuak hiru hilabeteko balioa dauka.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

#### **3.2.-GANASA**

Ganasatik, 2017/2018 mendi kanpainako lanen kontratazio espedientea ikuskatzeko dokumentazio eskatzen zaio udalari, urriaren 4rako bidali behar da dokumentazioa.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.3.-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEA. Prebentzio Batzordea**

Prebentzio Batzordetik, irailaren 17rako bilera deialdia eta azken akta jaso ziren.

Aldi berean Irailaren 17ko bilerako akta ere jaso da.

### **3.4.-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEA. Goxali**

2018/2019 Ikasturteko Goxali “Ludotekaren” kostua zenbat izango den jakinarazi da, hilean 816,94€ kostako zaio Udalari.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da

### **3.5.-OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEA. Beka deialdia**

Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik, Goizuetako eta Aranoko emakumeen parte-hartzea aztertzeko beka daialdiaren berri jaso da. Gaur bukatu da eskaerak aurkezteko epea.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen.

### **3.6.-FORESNA ZURGAIA-NAFARROAKO BASO ELKARTEA**

Foresna Zurgaiak, datorren urriaren 4ean Iruñeko Baluartean bio-ekonomiari buruzko jardunaldirako gonbidapena luzatu du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.7.-NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA.**

NUKF-tik, Irailaren 11n ospatutako Batzorde Betearazlean aztertutako gaien informazioa igorri du, baita 2018rako formakuntza planaren berri ere.

Azkenik, “Hiri Eremuak Berreskuratzeko diru-laguntza” deialdiaren oinarriak era jaso dira, eskaerak aurkezteko epea urriaren 15 arte da.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.8.-GOIENER**

Goiener-ek bilera informatibo baterako deialdia egin zuen irailaren 20rako, Leitzako Aurrera Kirol Elkartean, arratsaldeko 19.00tan, “SorkWhatz” proiektuaren berri emateko.

Udalbatza jakinaren gainean zegoen

### **3.9.-ARALAR MUSIKA ESKOLA. 2018/2019 Ikasturtea.**

Aralar Musika Eskolatik, 2018/2019 ikasturteko ordutegia eta erabili behar dituzten gelak zein diren jakinarazi da.

Aldi berean, 2018/2019 ikasturteari dagokion udalen kuotaren kalkuloan akats bat egon dela adierazten da, ikasturteari dagokion %25 a 3.911,41€ direla zuzenduz.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.10.-JASANGARRITASUNAREN, INGURMEN HEZKUNTZA ETA PARTAIDE PUBLIKOAREN ATALA.**

Ingurumen heziketarako eta boluntarioratza laguntzeko jarduera programa bat antolatu da eta programaren informazioa jaso da, irailaren 15ean hasi zelarik Aurizberrin lehenengo jarduera. Lehen jarduera hau, gizakiak esku hartu eta kudeaturiko oihan-masen bilakaera mailari buruzkoa izan zen.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

### **3.11.-POT 2-PAISAIA DOKUMENTUA**

Nafarroa Atlantikoari dagokion Lurraldearen Antolamenduko Plnaren Paisaia-Dokumentua egite prozesuan egonik, irailaren 25erako, mahai tekniko bat antolatu da, Lekunberriko Plazaola Partzuergo Turistikoaren bulegotan, goizeko 10.00tatik 14.00 tara.

### **3.12.-LEITZA, GOIZUETA, ARESO ETA ARANOKO EUSKARA ZERBITZUA.**

Euskara Zerbitzutik, Sakanako Mankomunitateak antolatu duen tailer baten berri jaso da; tailer hau kirol begiraleentzako zuzendua dago, eta irailaren 7 eta 8an ospatu zen Altsasun

Udalbatza jakinaren gainean zegoen

## **4.-ESKAERAK**

### **4.1.-PAULINO LIZASOAIN Telebistako 13 kanal pakete eskaera.**

Paulino Lizasoain Elosegui Goizuetako Udalera zuzendu da eta telebistako “Canal Trece” deritzon paketea erosteko eskaera egin dio udalari.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren aho batez erabaki du interesatuari jakinaraztea, Goizuetako Udalak Nafarroako Gobernuari eskatu diola azken asteetan gaizki edo ezin ikusi diren telebista kanalak konpontzeko. Aldi berean aho batez erabaki da, Goizuetako Udalak egun dauden telebista

paketeen mantenimendu lanak egingo dituela, eta ez pakete berrien erosketa.

#### **4.2.-IZKIÑA BASURDE TALDEA. Javier Apezetxea Elizalde**

Javier Apezetxea Elizalde, Izkiña Basurde Taldearen izenean (Goizueta-Arano Ehiza Elkarteko basurde talde baten izenean), Goizuetako Udalera zuzendu da eta Beheko Frontoiaren atzekaldean (Asinko aldetik) txabola txukun bat egiteko baimena eskatu du, txabolaren erabilera, basurdeak puskatzeko eta Izkiña ehiza taldea elkartzeko izango litzake. Lanaren kostua taldearen karguko izango litzakela dio.

Udalbatzak eskaera aztertu ondoren, aho batez erabaki du, txabola egiteko baimenik ez ematea egun industriagunean dauden eraikinez aparte beste berri bat egiteko.

Jakinarazten da, basurdeak puskatzeko erabilera duen eraiki bat egiteko, baimen berezia izapidetu beharko dela udalean, ondoren aipatzen diren legeetan oinarrituz (4/2005 Foru Legea Ingurumena Babesteko esku hartzeari buruzkoa, 4/2005 Foru Legea garatzen duen 93/2006 Foru Erreglamendua, eta 93/2005 Foru Erreglamendua garatzen duen 448/2014 Foru Agindua).

Ehiza taldearen elkartzeko edo biltzeko erabilerari dagokionean, aho batez erabaki da, Izkiña Ehiza Taldeari jakinaraztea, Goizuetako Udalak, Tifanitxo Eraikiaren birgaitze obra egikartzeko prozedurari hasiera eman behar diola; obra egin ondoren, bertako lokal bat Goizueta-Arano Ehiza Elkartearen erabilerarako aurreikusia dagoelarik, Basauntz Ehiza Elkartek eskatu bezela.

#### **5.-2018KO AURREKONTUAREN ALDAKETA 08/2018. HASIERAKO ONARPENA**

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaiari garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, zera agintzen du Alkateak:

2018 ekitaldiko aurrekontuaren aldaketa egiteko dagokion espedientea izapidetzea, eta hau gauzatu ondoren, aurrekontuaren aldaketaren onarpenerako Udal Batzarrean aurkeztea agintzen du.

Horretarako, Alkatea, honako kontuhartzailearen txostenean oinarritzen da:

2018 urteko aurrekontuaren 08 aldaketa modu honetan egiten da

### **KONTUHARTZAILEAREN TXOSTENA.**

Miriam Arozena San Miguelek, Goizuetako Udaleko Ordezko Idazkari-kontuhartzailea naizen honek, 2/1.995, martxoaren 10eko, Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, 270/1.998, irailaren 21eko, Foru Dekretuak, 2./1.995 Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duenak agintzen duenaren arabera, txosten hau egiten dut:

### **TXOSTENA**

*Aurrekontua aldatzeko aplikagarri den legedia.*

2/1.995 martxoaren 10eko Foru Legeak, Nafarroako Toki Ogasunak arautzen dituenak, bere 212 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera, eta 2/1.995ko Foru Legea gastu publiko eta aurrekontu gaian garatzen duen 270/1.998, irailaren 21eko Foru Dekretuak bere 35 artikuluan eta hurrengotan agintzen denaren arabera eta aurrekontuaren exekuzio oinarrietako 10 oinarrian agintzen denaren arabera, beharrezkoa ikusten da, kreditu berezi eta kreditu gehigarri bidez, ondoren aipatzen diren aurrekontu aldaketak egitea

2018 urteko aurrekontuaren aldaketa modu honetan egiten da:

### **AURREKONTUAREN ALDAKETAK 08/2018**

\*Kreditu gehigarria: Kontusaila 1.9200.6320002 Tifanitxo. Zenbatekoa: 106.906,82€

**Honela finantziatzen da:**

Kontusaila: 1.87010 Diruzaintzako gerakiñetako afektatutako errekurtsoen kontura. Zenbatekoa 106.906,82 €

\*Kreditu berezia: Kontusaila 1.9320.6400001 Balorazio Ponentziaren errebisioa. Zenbatekoa: 6.622,89 €

**Honela finantziatzen da:**

Kontusaila: 1.87010 Diruzaintzako gerakiñetako afektatutako errekurtsoen kontura. Zenbatekoa 6.622,89€

*Aurrekontuaren aldaketa egiteko jarraitu beharreko prozedura:*

1.-Udalbatzak behin behineko onarpena

2.-Jendaurreko erakustaldia, 15 eguneko epean Udaleko iragarki oholean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren. 15 eguneko epe honetan interesatu denak aurrekontuaren aldaketaren espedientea aztertu dezake eta ongi deritzon erreklamazioak egin ditzake.

3.-Erreklamazioak egongo balira, Udaltzak, hauei erantzuna emango die, eta behin betiko onartuko du aurrekontua.

4.-Erreklamaziorik ez balego, aurrean aipatutako 15 eguneko epea pasatzen denean, behin betiko onartua dagoela aurrekontuaren aldaketa ulertuko da.

5.-Behin betiko onartutako aurrekontuaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da

Beharrezko ondoriotarako,

Goizuetan, 2018ko irailaren 18an

IDAZKARIA.

Sin: Miriam Arozena San Miguel

Udaltzak, egin beharreko aldaketak aztertu ondoren, aho batez, 2018 ekitaldiko aurrekontuaren 08/2018 aldaketei, hasierako onarpena ematea erabaki du, aldi berean legeak agintzen dituen izapidetzak egitea erabaki da.

#### **6.INICIO DE LA REVISION Y ACTUALIZACIÓN DE LA PONENCIA DE VALORACION DE GOIZUETA. NOMBRAMIENTO DE LOS COMPONENTES DE LA COMISION MIXTA.**

De acuerdo con lo previsto en la Ley Foral 12/2006, de 21 de Noviembre, del Registro de la Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra, artículos 33 a 39 en relación con el Reglamento de Desarrollo mediante Decreto Foral 100/2008 de 22 de Septiembre, artículos 33 a 44, la Corporación de Goizueta acuerda por unanimidad

-Dar inicio al expediente de revisión de la Ponencia de Valoración de Arano, de agosto de 1995

-Nombrar como sus representantes en la Comisión Mixta al Sr. Alcalde Unai Loiarde Ansa, y 2 Concejales del Ayuntamiento de Goizueta, Itsaso Lujanbio Apezetxea y Daniel Oyarzabal Larraburu.

-Solicitar al Servicio de Riqueza Territorial y de los Catastros de Navarra, facilite cuanta información obre a su disposición correspondientes a los años 2004 al 2018, y pueda ser relevante para la correcta elaboración del Proyecto de Revisión de Ponencia

Se va a proceder a contratar con la empresa Tracasa el trabajo de elaboración de dicho Proyecto de valoración, por lo que la información de mercado solicitada, se remitirá directamente a Tracasa.

-Dar traslado de este acuerdo, al Servicio de Riqueza Territorial del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra.

## **7.- GOIZUETATIK ARTIKUTZARAKO SARBIDEAREN EGOKITZAPENA PROIEKTUKO OBRA LANAK EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA**

Goizuetatik Artikutzareko Sarbidearen Egokitzapen obra proiektua, Basarte SL-ko Enrique Montero Santa Eugenia menditako ingeniari teknikoak idatzi du.

Goizuetako Udalak, 2014/2020 urteetako "Programa de Desarrollo Rural-aren 2017ko lehenengo deialdiko diru-laguntzan, proiektu honentzako diru-laguntza eskaera egin du-

Goizuetako Udalarari 50.000€tako diru-laguntza onartu zaio, eta obra 2018ko otsailerako bukatu dela eta ordaindua dagoela justifikatua egon behar du.

Guzti hau kontutan izanik, obrari hasiera emateko, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Basarte SL-ko Enrique Montero Santa Eugenia menditako ingeniari teknikoak idatzi duen, Goizuetatik Artikutzarako Sarbidearen Egokitzapen obra proiektua onartzea

2.- Aipatutako proiektuan jasotzen diren obra lanak esleitzeko prozedura erraztuari hasiera emate eta kontratazio hau arautzen duten baldintza administrazioak onartzea.

## **8.- TIFANITXO ERAIKIN PUBLIKOA EGOKITZEKO PROIEKTUKO OBRA LANAK EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURARI HASIERA EMATEA ETA KONTRATUA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA PLEGUA ONARTZEA**

Tifanitxo Eraikin Publikoa Egokitzeko Proiektua, Lua Arkitektuak SLP-ko Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektuak idatzi du.

Goizuetako Udalak, 2014/2020 urteetako "Programa de Desarrollo Rural-aren 2017ko lehenengo deialdiko diru-laguntzan, proiektu honentzako diru-laguntza eskaera egin zuen eta ezeztu egin zitzaion, eraikiaren jabetza edo ta erabilgarritasuna ez zuelako egiaztatu

Goizuetako Udalak, 2014/2020 urteetako "Programa de Desarrollo Rural-aren 2018ko lehenengo deialdiko diru-laguntzan, proiektu honentzako diru-laguntza eskaera egin nahi du

Obrari hasiera emateko, udalbatzak aho batez erabaki du:

1.- Lua Arkitektuak SLP-ko Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektuak idatzi duen, Tifanitxo Eraikin Publikoa Egokitzeko obra proiektua onartzea

2.- Aipatutako proiektuan jasotzen diren obra lanak esleitzeko prozedura erraztuari hasiera emate eta kontratazio hau arautzen duten baldintza administrazioak onartzea.

## **9-ALKATEAREN EBAZPENAK**

Alkatearen ebazpenen berri ematen du Alkateak, **2018- 92tik 101era** zenbakia duten alkatearen ebazpenak dira. Udalbatza jakitun gelditzen da eta aho batez berretsi egiten ditu

92 zenbakia: Juan Jose Elizalde Usarraga, 2 poligonoko 91 partzelan jarduera sailkatuaren funtsezko aldaketaren onarpena

93 zenbakia: Juan Jose Elizalde Usarraga, 2 poligonoko 91 partzelan jarduera sailkatuaren funtsezko aldaketarako obra baimena

94 zenbakia: Acciona SA-ri kanalaren matenimendu obra lanak egiteko obra baimena.

95 zenbakia: Luis Iganacio Loyarte Iribarren mendi aprobetxamendua egiteko hasierako izapidetza.

96 zenbakia: Pilar Apezetxea Zubieta, Idoitako etxebizitzan (4 poligonoa, 48 partzela, 1 azpipartzela, 29 hiri unitatea) komona eta sukaldea berritzeko obra baimena

97 zenbakia: Arantxa Gamio Salaberria, irailaren 22an eskolako dutxak erabiltzeko baimena, Arantzatik datozen mendizaleentzat

98 zenbakia: Arantxa Narbarte Salaberria, 4 poligonoko 565 partzelan eraikitzen ari den familiabakarreko etxebizitzaren obra bukatzeko epe luzapena, urte baterako.

99 zenbakia: Beheko Landako Bidearen, lurzoru, hornidura eta argiteri publikoaren kanalizazio obraren proiektuaren idazketa eta zuzendaritza zerbitzu kontratuaren esleipena, Arquitrabe Compañia de Ingenieria SLL-ri

100 zenbakia: Luis Maestre Mugica, 2 haritz sutako aprobetxatzeko baimena

101 zenbakia: Erreka-Leku Montefrio, pistaren mantentze lanen ordainketa Excavaciones Lasa-ri

## **10.- MOZIOA: ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak, Antsoaingo Udalak hala eskatuta, ondorengo erakunde adierazpena igorri da, osoko bilkuran onartzeko

### ***ANTSOAINGO UDALAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA***

*Jaiak direla eta gure herriko Rafael Alberti plazan jarritako esku gorri erraldoiaren aurkako eraso irmoki salatu nahi du Antsoaingo Udalak. Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin elkar lanean, Berdintasun Arloak ditugun hainbat*



*Tokiko Erakundek egiten dugun lanaren zati bat da esku hau, gure herriari Iruñeko Udalak utzitakoa.*

*Erasotua izan den eskuak Nafarroako jendartearen emakumeon indarkeriaren kontrako konpromisoa ordezkatzeko du, eta Udalaren ustez, nahita egindako eta aurrez pentsatutako eraso matxista da. Horrexegatik, Udalbatzako udal talde guztiek onartutako eraso sexisten aurkako protokoloa martxan jarri da.*

*Kezkaz begiratzeko diegu horrelako gertakari bortitzei mugimendu feministak eta jendarteak bere osotasunean egindako lorpenen aurrean erantzuten duen egitura patriarkal batean gertatzen baitira. Lorpen hauek benetan bermatzen dituzte emakumeon eskubide zibilak eta jendarte osoaren onurako dira, izan ere, giza eskubideen garapen handiagoa ahalbidetzen dute. Hori dela eta, gizon heldu eta gazteei dei berezia egiten diegu lorpen hauen parte izan daitezen eta ez ditzaten jarrera eta eraso matxistak babestu; era berean, emakume heldu eta gazteak animatu nahi ditugu edozein erasoren aurrean erantzutera eta beste pertsonen laguntza bilatzera.*

*Beraz, Antsoaingo herritarrei dei egiten diegu datorren larunbatean, irailaren 15ean, Antsoaingo Rafael Alberti plazan erasotua izan den esku gorria konpontzeko egingo den talde ekintzan parte hartzera. Bertaratuko diren pertsona guztien artean eragindako kalteak konponduko ditugu.*

*Era berean adierazi nahi dugu, gertakari honek berdintasunaren alde eta bortizkeria matxistaren kontrako lanean jarraitzeko beharra berresten duela, uste baitugu, hau dela emakume guztion giza eskubideen bermea lortzeko bide bakarra, gure herrian eta baita munduan ere.*

*Ez Antsoainen, ez beste inon, eraso sexistarik ez!*

*Antsoainen, 2018ko irailaren 14an*

Udalbatzak aho batez erakunde adierazpenarekin bat egin du, eta honen berri Antsoaingo Udalarari emango dio

## **11.- ESKARI ETA GALDERAK**

Alkateak eskari edo galderarik ba ote duten galdetzen die udalbatzako kideei. Galdera edo eskaririk egiten ez denez, arratsaldeko zortziak direnean alkateak bukatutzak eman du bilera, nik, Idazkariak ziurtatzen dut